




HONDARRIBIKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA ETA
AIPATUTAKO DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUA, ANALISI
TXOSTEN BEREZLAREKIN BATERA***





AURKIBIDEA

IKUSKATU GABEKO ONDARE KONTUEI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA	2
1.- ANALIZATUTAKO ONDARE KONTUAK.....	5
1.1. Hondarribiko Udalaren balantzeak (ikuskatu gabeak)	5
1.2. Hondarribiko Udalaren galdu-irabazien kontuak (ikuskatu gabeak).....	6
2- AURKEZPEN OINARRIAK	8
2.1. Sarrera	8
2.2. Aplikatzekoa den araudia	8
3- AZALPEN ATALAK.....	10
3.1. Finantzaz bestelako ibilgetua	10
3.2. Finantza-ibilgetua.....	11
3.3. Funts propioak.....	15
3.4. Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak	15
ERANSKINA: Ikuskatu gabeko ondare-kontuen analisisian aplikatutako prozedurak	17



HONDARRIBIKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 3IKO BALANTZEARI BURUZKO
AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA ETA AIPATUTAKO DATAN
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU
IRABAZIEN KONTUA***





2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA ETA AIPATUTAKO DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUA

Hondarribiko Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiari:

I. SARRERA

HONDARRIBIKO UDALAREN 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua aztertu ditugu (1. atala). Ondare-kontu horiek 2015eko ekitaldiari dagokion HONDARRIBIKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute.

Alkateak du urteko kontuak aurkezteko erantzukizuna, aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren esparrua kontuan hartuta (2.1. atalean zehazten da) eta, zehazki, kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera. Orobat, urteko kontuak oker materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolaren erantzulea da.

II. LANAREN HELBURUA ETA HEDADURA:

HONDARRIBIKO UDALAREN 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua aztertu ditugu (1. atala). Ondare-kontu hauek 2015eko ekitaldiari dagokion HONDARRIBIKO UDALAREN kontu orokorrean barne hartzen dira; erakundeko lehendakariari dagokio horiek formulatzeko erantzukizuna. Azterketa bat erakundeko pertsonalari galderak egitera eta kontabilitate-informazioari buruzko prozedura analitiko jakin batzuk (txosten honen eranskinean zehazten direnak) aplikatzera mugatzen da. Analisi batek hedapen murrizta eta kontu-ikuskapen batena baino txikiagoa duenez gero, ez dugu adieraziko erantsitako 2015eko abenduaren 31ko balantzeari buruzko iritzirik, ez eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuari buruzkorik ere (1. atala).


Aplikatzekoa den araudiari jarraiki, balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren kontu-sail bakoitzarekin 2015eko ekitaldiko zifrez gain aurreko ekitaldikoak ematen dira konparazio gisa. Gure analisiak 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua baino ez ditu aztergai.

III.- ONDORIOAK

Gure analisiaren emaitza gisa ez da agerian utzi erantsitako 2015eko abenduaren 31ko balantzean edo data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuan (1. atala) aldaketa garrantzitsuak sartzeko beharra –hurrengo paragrafoetan deskribatuko ditugunak izan ezik– kontu horiek indarrean dagoen araudian bildutako Kontabilitate Printzipio Publikoei jarraiki aurkeztearren. Prozedura gehigarriak aplikatu edo kontu-ikuskapen bat egin izan bagenu, beste aldaketa batzuk sartzeko beharra agerian utz genezakeen:

- Aztertu diren erantsitako kontuetako salbuespenen eraginez (1. atala). Salbuespen horiek 2015eko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren Likidazioari buruzko ikuskapen-txostena atalean deskribatzen dira. Aipatutako txostena 2016ko uztailearen 22an aurkeztu zen.

Betean Auditoría, S.L.P



José Ignacio Miguel Salvador

2016ko uztailearen 22a



HONDARRIBIKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU IRABAZIEN
KONTUA (IKUSKATU GABEAK)***



1. ANALIZATUTAKO ONDARE KONTUAK
1.1 BALANTZEA (IKUSKATU GABEA)

AKTIBOA	15.12.31	14.12.31	PASIBOA	15.12.31	14.12.31
A) IBILGETUA			A) FUNTS PROPIOAK		
I) Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	66.501.289,29	67.030.493,29	Ondarea	97.362.992,61	92.535.995,80
II) Immateriala	717.508,79	324.425,35	Ondarea lagapenean	16.177.494,01	16.177.494,01
Ikarketa eta garapeneko gastuak	2.354.580,45	2.361.395,35	Atxikitako ondarea	145.637,14	145.637,14
Bestelako ibilgetu immateriala	2.427.877,33	2.402.877,33	Lagalako ondarea	(340.517,00)	(340.517,00)
Amortizazioak	2.303.437,01	2.303.437,01	Erabilera orokorrerako emandaiko ondarea	(5.820.798,22)	(5.820.798,22)
III) Materiala	(2.376.733,89)	(2.344.918,99)	Ixritako ekitaldielako emaitzak	(59.815.736,50)	(58.920.578,60)
Lur eta ondasun naturalak	47.131.400,81	48.081.873,35	Geldu-irabaziak (M/G)	141.294.758,47	136.533.939,35
Eraikuntzak	39.422.827,12	39.423.277,89		5.722.154,71	4.760.819,12
Instalazio teknikoak eta makineria	1.659.494,76	1.587.948,15	B) HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK		
Bestelako instalazioak, tresneria eta altxariak	3.233.363,19	3.177.657,06	III) Beste sarrerak	4.208.222,35	4.270.195,68
Informazio-prozesuetarako ekipiak, garraio-elementuak eta beste ibilgetu materiala	4.983.744,42	4.884.257,90		4.208.222,35	4.270.195,68
Amortizazioak	(15.586.661,91)	(14.409.900,88)	D) EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK		
IV) Udalaren lurzoru-ondarea	9.859.682,06	9.859.682,06	II) Epe luzerako bestelako hartzekodunak	169.061,25	169.882,35
Lursailak	9.859.682,06	9.859.682,06		169.061,25	169.882,35
V) Finantzartoa	6.438.117,18	6.403.117,18	E) EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK		
Partaidetzak sektore publikoan	6.419.256,68	6.384.256,68	I) Hartzekodunak	2.513.150,51	2.488.025,50
Epe luzerako finantza-inbertsioak	8.104,72	8.104,72	Aitoritutako obligazioen ondoriozko hartzekodunak. Aribideko ekitaldia	2.184.180,48	2.155.521,41
Eraiki gabeko sektore publikoko partaidetza	12.020,00	12.020,00	Aitoritutako obligazioen ondoriozko hartzekodunak. Ixritako ekitaldiak	1.980.880,07	1.997.016,45
Hornidurak	(1.264,22)	(1.264,22)	Sarreraren itzuleraren ondoriozko hartzekodunak	8.997,43	50.147,72
			BEZaren ondoriozko hartzekodunak	45.961,34	6.718,29
D) ZORDUNAK			Aurrekontuz kanpoko beste zenbait hartzekodun	148.341,64	-
I) Zordunak	1.390.067,07	1.872.571,47			101.638,95
Aitoritutako eskubideen ondoriozko zordunak. Aribideko ekitaldia	1.390.067,07	1.872.571,47			
Aitoritutako eskubideen ondoriozko zordunak. Ixritako ekitaldiak	1.808.107,86	1.731.554,45			
Bestelako zordunak	2.387.862,93	2.502.543,36			
Hornidurak	9.039,53	11.783,89			
	(2.815.943,25)	(2.373.310,23)	II) Erakunde publiko hartzekodunak	328.467,88	332.001,94
E) FINANTZA KONTUAK			IV) Bestelako zorrak	502,15	502,15
I) Aldi baterako finantza-inbertsioak	36.362.070,36	30.561.034,57			
II) Diruzaintza		28.000.000,00			
	36.362.070,36	2.561.034,57			
AKTIBOA GUZTIRA	104.253.426,72	98.464.098,33	PASIBOA GUZTIRA	104.253.426,72	99.464.099,33

-Eurotan-

1.2 GALDU IRABAZIEN KONTUA (IKUSKATU GABEA)

ZORRA		15.12.31	14.12.31	HARTZEKOAK	15.12.31	14.12.31
A) GASTUAK				B) SARRERAK		
Langile-gastuak	5.037.474,65	5.319.452,08		Negozio-zifiraren zenbaterako garbia	418.692,74	364.055,37
a) Solidatak eta abokatuak	3.901.074,81	4.130.894,28		a) Zerbitzuginza	418.692,74	364.055,37
b) Gizarte-kargak	1.136.399,84	1.188.557,80		Zergak		
Ibilgetuaren amortizazioelarako zuzkidurak	1.328.306,61	1.349.265,66		a) Zuzeneakoak	7.924.112,08	7.531.580,99
Trafiko-horniduren aldiakuntza	442.633,02	274.566,00		b) Zeharkakoak	7.772.400,10	7.407.072,17
a) Horniduren aldiakuntza eta kreditu kobrazinen galerak	442.633,02	274.566,00		Transferentzia eta diru-laguntza arruntak	151.711,98	124.508,82
Beste ustiapen-gastuak	9.351.936,61	9.352.036,65		Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak		
a) Kanpoko zerbitzuak	6.473.335,56	6.718.232,98		a) Kudeaketa-sarrera osagarriak	2.313.196,57	2.024.954,29
b) Zergak	227.115,80	2.308,21		b) Arriskueta- eta gastuetarako gehiegizko hornidura	2.313.196,57	2.024.954,29
c) Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	2.651.485,25	2.631.495,46				
I. USTIAPEN MOZKINA	5.861.846,58	4.284.898,77		I. USTIAPEN GALERAK		
Finantza-gastuak eta gasu parekatuak	3.720,28	3.872,02		Balore negoziagarrien eta kredituen sarrerak		
a) Interesen ondoriozkoak	3.720,28	3.872,02		a) Interesen ondoriozkoak	102.270,85	202.556,92
Finantza-inbertsioen horniduren aldiakuntzak		792,22			102.270,85	202.556,92
II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	98.550,57	197.892,68		II. FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK		
IV. OHIKO JARDUEREN MOZKINAK	5.960.397,15	4.482.791,45		IV. OHIKO JARDUEREN GALERAK		
Aurreko ekitaldiako gastuak eta galerak	316.724,38	933.232,12		Aurreko ekitaldiako sarrerak eta mozkinak	46.999,96	399,30
V. AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK				V. AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	269.724,42	932.832,82
Ibilgetu immaterialek, materialek eta kontrol-zorrorik datozen galerak				Ibilgetu immateriala, materiala eta kontrol-zorroa besterentzearen ondoriozko mozkinak	29.281,98	1.220.238,93
Aparteko galerak		9.378,44		Aparteko mozkinak	2.200,00	
VI. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	31.481,98	1.210.860,49		VI. APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK		
EKITALDIAREN EMAITZA (MOZKINA)	5.722.154,71	4.760.819,12		EKITALDIKO EMAITZA (GALERA)		



HONDARRIBIKO UDALA

***IKUSKATU GABEKO 2015EKO ABENDUAREN 31KO
BALANTZEAREN ETA DATA HORRETAN AMAITUTAKO
EKITALDIKO GALDU IRABAZIEN KONTUEN AZALPEN
ATALAK, ETA BESTELAKO OHARRAK***





2. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1 SARRERA

HONDARRIBIA Bidasoaldean dago, Gipuzkoan, eta zuzenbidezko 16.945 biztanle ditu 2015eko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

HONDARRIBIKO UDALAREN kontu orokorra, 2015eko ekitaldiari dagokiona, *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren* 62. artikulua exijitzen dituen udalaren beraren eta "HONDARRIBIA LANTZEN, SA" sozietate publikoaren eta "ARMA PLAZA" fundazioaren aurrekontu- eta ondare-izaerako kontuek eta egoera-orriek osatzen dute.

2015eko ekitaldiari dagokion Hondarribiko Udalaren Kontu Orokorrean barne hartzen diren erantsitako ondare-kontuak (1. atala) Udalaren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

2015eko ekitaldiko kontu orokorra 2016ko ekainaren 23an egindako bilkuran onartu du Udalbatzak.

2.2 APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2015eko ekitaldian, Udalak Gipuzkoako Toki Sektore Publikoari buruzko Araudia hartu du oinarri:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 15/1994 Foru Araua, azaroaren 23koa, Udal Finantzaketarako Foru Funtzari buruzkoa.
- 1098/2001 Legea, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuari buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena.



- 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituen.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, 18/2001 Lege Orokorra, abenduaren 12koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzkoa, garatzeko araudia onartzen duena, lege hori toki-erakundeei aplikatzearen.
- 141/2007 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, toki-erakundeen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko agindu jakin baizuen aldaketa eta kontabilitate-jarraibidea onartzen dituen.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortzeko dena.
- Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluaren 2014ko azaroaren 18ko erabakia (Gipuzkoako toki-erakundeek 2015. urteko aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko bete beharko duten jarraibidea).
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, arrazionalizazio-neurriak aplikatzeko foru-berezitasunari eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan Toki Administrazioaren iraunkortasunari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 8koa, Zergei buruzkoa.
- 1/2015 Foru Dekretua / Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztekoa.

3. AZALPEN ATALAK

3.1- FINANTZAZ BESTELAKO IBILGETUA

Balantzearen epigrafeka sailkatuta, hona hemen finantzaz bestelako ibilgetua osatzen duten saldoen laburpena:

-Eurotan-		
Finantzaz bestelako ibilgetua	15.12.31	14.12.31
Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	717.508,79	324.425,35
Immateriala, garbia	2.354.580,45	2.361.395,35
Materiala, garbia	47.131.400,81	48.081.873,35
Udalaren lurzoru-ondarea	9.859.682,06	9.859.682,06
Finantzaz bestelako ibilgetua guztira	60.063.172,11	60.627.376,11

1994an, orduan eskuratuta edo lehenago eraikita zegoen ibilgetua balantzeari eransteko xedez, udal-ibilgetuaren inbentario eta balorazioa egitea mandatu zuen Udalak, nahiz eta balorazio-arauek ondasun horiek baloratu ahal izateko eskuratze-prezioa edo produkzio-kostua erabiltzea nahitaezkoa dela adierazten duten. Amortizazioen udal-inbentario garbia, 1994ko abenduaren 31n, 22.766 mila euroko zenbatekora iristen zen, gutxi gorabehera.

2015eko abenduaren 31ko balantzean, 1994ko abenduaren 31 baino lehen ustez erabilera orokorrerako emandako ondasun-multzoa zero balioarekin islatuta dago, data hartan eratu baitzen kontu hori.

2015eko ekitaldiaren itxieran, erabilera orokorrerako entregatu dira 659.648 euroko zenbatekoa duten azpiegiturak; funtsean, "Gibeleta eta Mendelu Berrako argiteria"ko obrenetatik. Ibilgetu materialetik ere entregatu dira, 235.510 euroko zenbatekoaz.

"Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea" epigrafeko saldoa osatzen duten amaitu gabeko obra nagusia hau da, nagusiki: Portu Auzoko urbanizazio-obraren 5. fasea, 610.891 euroko zenbatekoaz.

2015eko ekitaldian zehar, erabilera orokorrera zuzendutako azpiegiturei dagozkien epigrafetik kendu egin da "Txingudiko Zerbitzuak, SA" sozietateari dagozkion gehikuntzak, sozietate horrek finantzatutakoak, 252.784 euroko zenbatekoaz.

Era berean, 69.728 euro erretiratu dira Talaia Borda ikastolan egindako obren adizioengatik, eta horiek ibilgetu materialean birsailkatu dira.



Bestalde, ibilgetu materialaren barruan birsailka litezke 2015ean erregistratutako adizioak, 102.907 euroko zenbatekoaz, Puntaleko futbol-zelaia birmoldatzeko obrak direla-eta. Horiek, adierazitako ekitaldiaren amaieran, erabilera orokorrerako entregatuta daude.

Aitzitik, ibilgetu immaterialean erregistratu beharko lirateke herritarrek parte hartzeko web-plataforma prestatzeko 2014an egindako adizioak, 15.458 euroko zenbatekoaz (“Informazio-prozesuetarako tresneria” gisa daude erregistratuta).

“Udalaren lurzoru-ondareari” dagokionez, Udalak aribideko ekitaldian edo aurrekontuetan eskuratutako edo gauzatutako beste ondasun batzuk ere egon daitezke –haien izaera kontuan izanik, epigrafe horretan birsailkatu ez direnak hain zuzen ere–. Horrenbestez, ezinezkoa zaigu 2015eko abenduaren 31n birsailkatu ez diren inbertsio horiei dagokien zenbatekoa zehaztea.

2015eko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek 56 milioi euroko estaldura aintzat hartzen dute, gutxi gorabehera, eraikin, instalazio eta tresneria elektrikoetako sute-arriskurako (edukitzailea gehi edukia).

3.2 FINANTZA IBILGETUA

Egoera-balantzeko epigrafe honen kontukako laburpena hau da:

- Eurotan-					
Partaidetzak sektore publikoan	Partaidetza	15.12.31	KBG	Udalaren KBG	Hornidura
Partaidetzak sektore publikoan		6.431.276,68	11.908.919,75	11.558.370,15	-
<i>Hondarribia Lantzen, SA</i>	100,00%	6.384.256,68	11.443.034,00	11.443.034,00	-
<i>Adebisa</i>	20,00%	12.020,00	438.187,00	87.637,40	-
<i>Arma Plaza</i>	100,00%	35.000,00	27.698,75	27.698,75	7.301,25
Epe luzerako finantza-inbertsioak		8.104,72	110.300,35	5.515,02	-
<i>Ortizibia</i>	5,00%	5.500,00	110.300,35	5.515,02	-
<i>Real Sociedad</i>	(*)	2.604,72	-	-	-
Finantza-ibilgetuaren balio-galeraren ondoriozko hornidura		(1.264,22)	-	-	(1.264,22)
Guztira		6.438.117,18	12.019.220,10	11.563.885,17	6.037,03

(*) Txosten hau egin den datan, ez zaizkigu helarazi sozietate horren urteko kontuak

“Hondarribia Lantzen, SA” 1992ko maiatzaren 26an eratutako sozietate bat da, udalak osorik partaidetua. Bere xede soziala da egoitza- eta industria-eraikinak kokatzera eta



zerbitzu-mota guztiak ezartzera destinatutako lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu, erosi eta saltzea, beste modu batzuetan sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu edo lagatzea, eta onura publikokoak edo pribatukoak izan daitezkeen etxebizitza, industria-eraikin, zerbitzu eta zuzkidura komunitarioak kudeatzea, hori guztia Hondarribiaren eta bere biztanleen mesedetarako.

Kapital soziala 2.996.693 euro zabaldu zuten, 2006ko apirilaren 11n egindako Batzar Nagusian erabakitakoaren arabera. 2008ko abenduaren 31n, kapital soziala 6.384.257 eurokoa zen, bakoitza 130.291 euroko balio nominaleko 49 akziotan banatuta. Akzio horiek guztiz harpidetuta eta ordainduta daude, Hondarribiko Udala izanik akziodun bakarra.

Honako hau da Hondarribia Lantzen, SA sozietatearen 2015eko abenduaren 31ko egoera-balantzearen eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuaren laburpena:

AKTIBOA		15.12.31	14.12.31	PASIBOA	
		15.12.31	14.12.31	15.12.31	14.12.31
Aktibo ez-arrunta	11.009.511,00	11.856.955,00	Ondare garbia	11.443.034,00	12.102.147,00
Aktibo arrunta-			Pasibo ez-arrunta-		
Izakinak	552.679,00	552.679,00	Epe luzerako homidurak	1.172.398,00	1.172.398,00
Merkataritza-zordunak	324.937,00	407.456,00	Periodifikazio ez-arruntak	557.247,00	569.016,00
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	1.376.202,00	1.040.168,00	Pasibo ez-arrunta-		
			Merkataritzako hartzekodunak	78.881,00	1.928,00
			Epe laburrerako periodifikazioak	11.769,00	11.769,00
Aktiboa guztira	13.263.329,00	13.857.258,00	Pasiboa guztira	13.263.329,00	13.857.258,00

-Eurotan-

-Eurotan-

KONTZEPTUA	15.12.31	14.12.31
A) USTIAPENA		
Bestelako ustiapen-sarrerak	277.853,00	278.158,00
Langile-gastuak	-	-
Bestelako ustiapen-gastuak	(104.228,00)	(193.959,00)
Ibilgetuaren amortizazioa	(847.444,00)	(855.222,00)
Finantzaz bestelako ibilgeturako diru-laguntzen egozpena	365.365,00	365.365,00
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza	11.769,00	11.769,00
A) USTIAPEN EMAITZA	(296.685,00)	(393.889,00)
B) FINANTZAKOA		
Finantza-sarrerak	2.940,00	8.518,00
Finantza-gastuak	(2,00)	-
B) FINANTZA EMAITZA	2.938,00	8.518,00
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	(293.747,00)	(385.371,00)
Mozkinen gaineko zerga	-	-
D) EKITALDIAREN EMAITZA	(293.747,00)	(385.371,00)

Hondarribiko kultura-ondarea kontserbatu eta hedatzeko "Arma Plaza" fundazioa 2012ko otsailean eratu zuen Udalak, irabazi-asmorik gabeko fundazio-erakunde gisa, 35.000 euroko fundazio-ekarpenaz.

Fundazio-ekarpen hori "kapital-transferentziaren" ondoriozko gastutzat erregistratu zuen Udalak 2011n; baina, haren izaera kontuan hartuta, finantza-ibilgetutzat erregistratu behar zuen, eta gorabehera hori 2015eko ekitaldi honetan zuzendu da.

Fundazioak xede hau du:

- Hondarribiko monumentuak kontserbatu eta zaharberitzea, eta haien inguruak hobetu eta egokitzea; hartarako monumentuak balioztatu egingo dira, eta ondoren, duten izaeraren arabera erabilera emango zaie.
- Hondarribiko natura-, kultura- eta paisaia-ondarea kontserbatu eta hedatzea.
- Partikularren edo gainerako erakunde publiko nahiz pribatuen parte-hartzea sustatzea, Fundazioak dituen xedeak lortzeko jardueri dagokienez.
- Herritarren artean fundazioaren helburuak hedatzea, fundazioaren xedeak hobeto ezagut ditzaten.

Honako hau da "Arma Plaza" fundazioaren 2015eko abenduaren 31ko balantzearen eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuaren laburpena:

-Eurotan-					
AKTIBOA	15.12.31	14.12.31	PASIBOA	15.12.31	14.12.31
Aktibo ez-arrunta	18.122,56	26.029,05	Ondare garbia	27.698,75	38.711,44
Aktibo arrunta			Pasibo ez-arrunta	-	-
Izakinak	21.951,72	10.523,11	Pasibo arrunta		
Merkataritza-zordunak	16.752,10	18.356,05	Merkataritzako hartzekodunak	20.876,72	18.399,87
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	24.749,09	27.670,13	Epe laburrerako periodifikazioak	33.000,00	25.467,03
Aktiboa guztira	81.575,47	82.578,34	Pasiboa guztira	81.575,47	82.578,34

-Eurotan-		
KONTZEPTUA	15.12.31	14.12.31
A) USTIAPENA		
Negozio-zifraren zenbateko garbia	52.602,10	38.767,28
Hornikuntzak	(12.614,56)	(7.502,66)
Bestelako ustiapen-sarrerak	280.553,08	230.888,50
Bestelako ustiapen-gastuak	(323.822,91)	(254.418,81)
Ibilgetuaren amortizazioa	(9.235,71)	(9.025,03)
Finantzaz bestelako ibilgeturako diru-laguntzen egozpena	1.027,41	816,72
Bestelako emaitzak	176,09	474,00
A) USTIAPEN EMAITZA	(11.314,50)	-
B) FINANTZAKOIA		
Finantza-sarrerak	-	-
B) FINANTZA EMAITZA	-	-
C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)	(11.314,50)	-
D) EKITALDIAREN EMAITZA	(11.314,50)	-

Balio negoziagarriarako kontabilitate-jarraibidean barne hartutako balorazio-arauei jarraituz, horiek eroste-prezioaren arabera baloratu behar dira eta bidezko hornidura zuzkitu behar da eroste-prezioaren eta kontabilizatutako finantza-ibilgetuari arazoizko balorazio-irizpideak aplikatzearen emaitzako zenbatekoaren arteko diferentziaren arabera. Ildo horretatik, Udalak adierazitako sozietateen sozietate-kapitalean duen partaidetza ixteko datan erregistratutako balorazioaren arazoizkotasuna egiaztatu ondoren, beharrezkoa da 6.037 eurotik gorako hornidura erregistratzea kontabilizatutako zenbatekoak aipatutako balorazio-arauetara egokitzeko.

3.3 FUNTS PROPIOAK

Balantzearen kapitulu hau osatzen duten kontuen saldoen xehetasuna honako hau da:

Funts propioak	-Eurotan-	
	15.12.31	14.12.31
Ondarea	16.177.494,01	16.177.494,01
Atxikitako edo lagatako ondarea	(6.161.315,22)	(6.161.315,22)
Ondarea lagapenean	145.637,14	145.637,14
Erabilera orokorrerako emandako ondarea	(59.815.736,50)	(58.920.578,60)
Ibitako ekitaldietako emaitza positiboak	141.294.758,47	136.533.939,35
Galdu-irabaziak	5.722.154,71	4.760.819,12
Funts propioak guztira	97.332.992,61	92.535.995,80

Balantzean, 2000ko ekitaldian inbentarioa egin baino lehen erabilera orokorrerako ustez emandako ondasunen osotasuna jasotzen da, zero balioaz.

Atxikita emandako ondasunak edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata emandakoak saldo zordunarekin erregistratu behar dira balantzearen pasiboko "Funts propioak" kapituluaren "Atxikitako ondarea" eta "Lagatako ondarea" epigrafeetan, hurrenez hurren.


Bestalde, atxikita hartutako ondasunen edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata hartutakoen balioa saldo hartzekodunarekin erregistratu behar da balantzearen pasiboko "Funts propioak" kapituluaren "Atxikitako ondarea" eta "Lagatako ondarea" epigrafeetan, hurrenez hurren.

3.4 HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK

Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak eratzen dituzten saldoen balantzearen kontzeptukako laburpena honako hau da:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	15.12.31	14.12.31
Hilerriko hilobien emakida	172.800,00	176.640,00
Azalera-eskubidea, Muliata	4.035.422,35	4.093.555,68
Guztira	4.208.222,35	4.270.195,68

Udalak, 2010eko ekitaldian, Domingotxoenea udal-hilerriko hogeita hamalau hilobien aldi baterako emakida esleitu zuen, 336.000 euroko zenbatekoaz. 2011ko ekitaldian, sei esleipen



deuseztatu ziren, hirugarrenek horiei uko egin dietelako. Hortaz, guztira 144.000 euroko eskubideak deuseztatu dira. Sarrera, proportzionalki, emaitzari egotzi zaio emakidaldiaren barruan (50 urte). 2015ean, kontzeptu horren ondorioz, 3.840 euro egotzi dira galdu-irabazien kontuan.

Bestalde, “36. Muliarte” hirigintza-eremuan, Udalaren jabetzako lursail baten gainean azalera-eskubidea eratzearen ondorioz, 4.360.000 euro erregistratu ziren 2010eko ekitaldian. Kopuru hori proportzionalki eraman da emaitzara, eskubide horren emakida-epan (75 urte) oinarrituta. 2015ean, kontzeptu horren ondorioz, 58.133 euro egotzi dira galdu-irabazien kontuan.



ERANSKINA:

**IKUSKATU GABEKO ONDARE KONTUEI BURUZKO AZTERKETAN
APLIKATUTAKO PROZEDURAK**

2015eko abenduaren 31ra arteko balantzeari eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuari buruzko azterketan, Erakundeko langileei egindako galderak eta erabilitako prozedura analitikoak, funtsean, hauek dira:

- Erakundeak aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei buruzko galderak.
- Erakundeak transakzioak erregistratu, sailkatu eta laburtzeko erabilitako prozedurei buruzko galderak.
- Apartekoak diruditen zerrenda eta kontu-sail indibidualak identifikatzeko diseinatutako prozedura analitikoak.
- Balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren irakurketa; eskura dagoen informazioan oinarrituta, horiek Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera prestatu diren ala ez jakiteko.